

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2015**

---

Joan den ekainaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena onartu zuen, 2015eko ekitaldiari dagokiona.

**Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

2014an egin zuen moduan, finantza egoerak 2015ean ere bilakaera positiboa izan zuen. **Aurrezki gordinak gora egin du**, izan ere **sarrerek** gastuek baino gehiago **egin dute gora**, Foru Aldundien ekarpenek batik bat. Honela, bada, besteak beste, **gora egin dute gastu sanitarioek, hezkuntzakoek, doako legezko laguntzakoek** eta **Lanbideri** egindako transferentziek. Ordea, **behera egin du inbertsioak eragindako gastuak**, nagusik Euskal Trenbide Sareak egikaritza txikiagoa izan duelako gipuzkoar bidezatian. Ekitaldiko inbertsioa finantzatzeko zorra baliatu da, emaitza positiboa eta **Diruzaintza Geldikin Erabilgarria** murriztu da.

Txostenak dio EA Eren Administrazio Orokorrek 2015ean aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren arauaren helburuak bete dituela; baita, merkataritzako eragiketetan ordainketa epeak (batez besteko ordainketa epea 29 egunekoa izan da, legeak aitortzen dituen gehienezko 30 egunen azpitik).

Txostenak aurreko ekitaldietan bezala **lurralde historikoaren araberrako gastu eta sarrerei buruzko informazioa** jasotzen du, urteko kontuetan ageri ez den informazioa. Lurraldearen arabera sailkagarri den 2015ean guztira aitortutako gastutik (finantza gastuak, zor publikoa eta inbertsio ez-materialak salbuetsita), % 27 Arabari dagokio; % 46 Bizkaiari; eta % 27 Gipuzkoari. Diru-sarreretan, berriz (zor publikoari dagozkionak salbuetsita), % 16 Arabari dagokio, % 51 Bizkaiari eta % 33 Gipuzkoari. Ehuneko hauek bat datoz Foru Aldundi bakoitzari ekitaldian jasotako zerga sarreretatik dagokion ekarpenen ehunekoarekin.

Txostenak ondorioztatu du EA Eren Administrazio Orokorrek zuzentasunez bete duela ekitaldian bere jardura ekonomiko-finantzarioa arautzen duen legedia, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren administrazioko kontratazioan: 1,3 milioi euroan esleitutako 2 espediente lehiaketatik salbuesteko justifikazioa ez da behar hainbatekoa izan; 216.098 euroren erosketak kontratuaren xedea zatikatuta egin dira edo dagokion espedientea izapidetu gabe. Gainera, Jaurlaritzaren Kontseiluak guztira 15,9 milioi euro egin duten gastuak baliokidetu ditu, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak aurkako txostena jaulkia zuela, batik bat prestazioak dagokion kontratu espedientea bideratu gabe egiteagatik eta publikotasun eta lehia printzipioak ez betetzeagatik; baita, diru-laguntzak ere (akatsak diru-laguntzen 2 programetan eta 2 diru-laguntza zuzenetan).